

# Aretxagazeta


ETA GAINERA...

**Ze barri?**

ASTEKO GAIA  
**Gotzainaren  
bisita /8**

BOTEPRONTOAN  
**Zirkulazioaren  
norabide aldaketa /9**

LEINTZ GATZAGA  
**Pilota  
txapelketako finala /10**



## Termitek egindako kalteak konpontzen



**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OROKORRAK**

Almen	943 71 49 07
Basoto	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko IME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 79 74 58
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

**UDALTAINGOAK**

Arrasate 943 79 14 39

**LARRIALDIAK**

SOS Delak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

**GUARDIAKO FARMAZIA**

**ZAPATUA, 23**  
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

**DOMEKA, 24**  
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

**OHARRAK**

**GORPUTZAREN ETA ADIMENAREN INTEGRAZIORAKO TAILERRA**  
Sadhana yoga eta psikoterapia zentroak gorputzaren eta adimenaren integrazio-rako tailerra antolatu du. Datorren martxoaren 23an izango da. Tailerra Maribel Gómez psikologo eta psikoterapeuta donostiar-rrak zuzenduko du. Intere-satuok eman izena martxoaren 15a baino lehenago 616 96 57 95 telefonoan.

**ESKI IRTEERARAKO AUTOBUSAK**  
Murruxiko mendi elkarteak Luz Ardiden-era antolatu duen bidaiari izena eman duzuen guztiondako oharra: autobusa AZBEKO geltokitik irtengo da zapatuan, goizeko bostetan.

**ORAINDELA 8URTEARETXABALETAN**

**Azatzako San Joan elizan, erlojua berriz ere martxan**

Azatarrek 1994. urteko otsailaren erdialdean entzun zuten ostera ere elizako erlojuaren kanpai soinu. Hogei urte zeramatzan geldituta, bederatziak eta hamazazpiak, hain zuzen ere. Geroztik, beste behin ere izan da geldirik, baina azkenaldian bere orduan entzun daitezke kanpaiak.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*“Ziarretzinka”*


Zeharka, etzanda.  
-Ziarretzinka jarritta euzki-epela artzen majo dago ori.



**LIBURUTEGIKOTXOKOA**

**‘Nabarra’**

Nabarra aldizkaria iaz sortu zen, Nafarroan, Euskal Herriko txoko guztietara helzteko asmoz. Oraingoan, Escriva de Balaguer Opus Deiko sortzailearen kanonizazioari buruzko erreportaje zabalak dakar, kirikoketa musika tresnari buruzkoa gero, eta Xamar-ekin euskarari buruz eginiko elkarrizketa jarraian. *Hamundua!* atalean Kolonbiako Deplazatuaren Koordinadorearen boz-ramaileari eginiko elkarrizketa dago. Horiez gain, ohiko atalekin daude: *Hemeroteka, Hilabeteko errepasso, Gure historia, Aintzindariak, Agenda, Kultura, Leitzukoak, Belarritakoa*, eta abar.



**NABARRA**  
aldizkaria  
Nabarrera  
Argitalpen  
Kudeaketa  
11. zenbakia  
2002ko otsaila

Euskarazko hilabetekari hori Udal Liburutegian aurkituko duzue hemendik aurrera.

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA


**ZORIONAGURRAK**



ESKORIATZA  
**Nahia Gómez**  
6an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, Jose Aranako lagun partetik.



ESKORIATZA  
**Ioritz Díaz de Gereñu**  
13an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, Jose Aranako lagun partetik.



ESKORIATZA  
**Manex Larzabal**  
15ean, 6 urte. Zorionak, Jose Aranako lagun guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Izaro Sánchez**  
21ean. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.




ESKORIATZA  
**Julian de la Torre**  
17an. Zorionak, familiaren partetik, eta urte askotarako.



ARETXABALETA  
**Myriam Beltran de H.**  
22an. Zorionak, Ikerren, Mararen eta etxeko beste guztien partetik!



ARETXABALETA  
**Nerea Zubillaga**  
22an, 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Ibon Elorduizapaterietxe**  
23an. Zorionak, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA  
**Asier Urzelai**  
23an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, Jose Aranako lagun partetik.



ESKORIATZA  
**Lide Crespo**  
23an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, ama, aita eta Mikelen partetik.



ESKORIATZA  
**Oskar Berezibar**  
24an. Zorionak, Arrasateko eta Eskoriatzako familiaren partetik.



ARETXABALETA  
**Iñigo Arkauz**  
27an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko- en eta familiaren partetik.



ESKORIATZA  
**Oris de la Torre**  
29an. Zorionak eta urte askotarako, familiako partetik.

BABESLEA

**Zorionak denoi !!!**

Foto

**Urkiola**

Argazkidenda

HERRIKO PLAZA 5  
20550 ARETXABALETA  
TELEF 943 79 39 20

\* ESTUDIOAK  
\* EZKONTZAK  
\* JAUNARTZEAK  
\* ENMARKAZIOAK  
\* DIGITAL LANAK  
\* KAMARAK ....

Beti karretean edo albuma dohanik !!!



**Taberna Berri jatetxea**

Durana, 26  
ARETXABALETA  
Tel. 943 79 20 67

PIENSO  
SUNZUE S.A.

**FELIX PAGALDAY**

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7-behea  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 77 00 33/79 42 56

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK

**RKU**


**URKULU SL**

Mitarte 23  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 96 66  
Faxa: 943 77 10 33

**Hirusta**  
Jatetxea

Ilargi plaza 4  
943 79 06 57  
ARETXABALETA


**ATREBENTZIA EZ PADA / Gaztiek asko edaten dauela uste dozu? Ze egin biherko litzake aldaketako?**




**ABEL SÁEZ**  
Langillie




**CRISTINA GARCÍA**  
Ikaslie



**ENRIQUE DE TENA**  
Langillie



**MARI CARMEN CORRES**  
Langillie



**HARITZ IGARTUA**  
Ikaslie



**ROSARIO MARTÍNEZ**  
Langillie

Bai, baiñe Espainako gobernuak atara gure dauen legie ez jat bat be ondo pentsetan. Ni gaztie izengo banitz, kalien edango nauce, tabernetako prezuek oso karuek die-eta.

Bueno... Lege horrekin, behintzet, ez da konponduko problemie. Kalien ez, baiñe tabernetan berdin jarraituko da edaten. Denpora librerako beste aukeratazuk eskeini biher die.

Bai. Kalien ez, baiñe tabernetan berdin-berdin jarraituko daue edaten. Ez da samurre irtenbidie topetie, gure gizartien alkoholaren kulturie barruraino sartute daukogu-eta.

Bai. Egixe esateko, larregi edaten daue. Inungo arrazoirik emun barik kalien alkohola edatie prohibidutie ez dot uste irtenbidie danik, eta gutxiago gabetan gaztien atzetik ibiltie.

Aste bukaeretan ez dakit asko edaten dan, baiñe jai-xetan bai. Dana dala, barruen edo kanpuen bardin edango da. Ez naz edatiaren aldekie, baiñe ez dakit ze egin biherko litzatekien.

Bai, baiñe lege hori ez da konponbidie izengo. Heziketa kontue dala uste dot. Lehenengo etxien erakutsi biher jakue gaztiei, eta gero eskolan. Tabernarixen laguntasune be biher da.

**TXALOAKETATXISTUAK**



**TXISTUAK GABONETAKO BONBILLAK** Ia bi hilabete dira Gabonak pasatu zirela, baina gure kaleetako zuhaitz batzuek oraindik Gabonetan lez daude, bonbillaz josita. Orain dela bi hilabete euren funtzioa bete zuten bonbilla horiek, baina udaberriari begira gauden honetan ez daukate zentzu handirik. Ez dakit zuhaitzei trabarik egingo dieten, baina bada ordua gainetik kentzeko. /MIRARI ALTUBE

**ETABARRUAN...**

<p><b>ELKARRIZKETA / 4</b></p> <p><b>Myriam Beltran de Heredia</b></p> <p>Drogamenpekotasun teknikariak alkoholaren inguruan onartu gura den legeari buruz eman du iritzia.</p>	<p><b>ASTEAN BEHIN / 5</b></p> <p><b>Termiten aztarnak</b></p> <p>Termiten aztarnek Durana kaleko hainbat etxebizitza berriutik beharrean utzi dituzte.</p>	<p><b>KIROLAK / 6</b></p> <p><b>Zaraia Mendizale Taldea</b></p> <p>Zaraia Mendizale Taldeak hamabostean behin antolatu ditu mendi irteerak 2002. urterako.</p>
---	---	--

**ASTEKODATUA**

**56**

**ZABOR EDUKIONTZI JARRI DITUZTE KALEETAN**

Zaborra batzeko sistema berria jartzen ari dira Debagoiengan, eta gure herrian 56 edukiontzi daude kaleetan dagoeneko. Hemendik aurrera, gura denean atera ahal izango da etxetik zaborra.

**BESTEKEESANA**

**“ UZEIren Sinonimoen Hiztegia MSWord-en integratzeko proiektua prest dago, UZEIK, IXA taldeak eta**

**HIZKIAK elkarlanean egindako lanari esker.**

**UZEIK hiztegia liburu formatuan eta CDan kaleratu zuen, baina gaur dokumentu bat idazten ari garenean, hitzaren gainean klik egin eta sinonimoa eskuratzeko aukera dugunez, errazago joko dugu sinonimoaren bila. Gainera, XUXEN askorentzat ezinbesteko bihurtu den bezala, bi produktuek lotura zuzena dute eta XUXENek onartzen ez duen hitza zuzendu eta segidan sinonimoa eskatzeko aukera ematen digu tresnak.**

**Aukera polita da gure hiztegia aberasteko, dokumentutik atera gabe, gainera.**

**MIRIAM URKIA**  
INTERNET/02-02-15

**HERRITARRENBERBAK / Xabier Sarasua**



*Gandi eta desobedientzia*

**M**ohandas Gandi hil zutela 54 urte bete dira oraintsu eta eredu bikaina izaten jarraitzen du guretzat, gaur eta hemen. Hona bere irakaspenen zenbait zipritzin:

- Pertsonak bere buruarekiko leial izan behar du, bere kontzientziaren arabera jokatzu beti, bidegabetzat jotzen dituen arau eta legeak ez betez eta sinisten duenaren alde azkenera arte borrokatuz.

- Borroka hau indarkeriarik gabea denean, agerian uzten du aldatu nahi den egoerak sortzen duen injustizia; eta aurkariak iritziz aldatzea lortzeko adinako indarra du, gainera.

- Borroka zilegia eta baliagarri izateko, ordea, gure pentsaerak eta kontzientziak askatasun eta giza eskubideen aldeko bidetik joan behar dute. Bide horretan asmatzeko, gure izpiritua landu beharra daukagu, mendebaldeko kulturaren balio materialistak alde batera uzten saiatuz.

Gandik Hego Afrikan indiarren agiriak erre zituen antzera, DNIak NBera bidaltzeko '100etik 1.000ra kanpaina' hasi dute Burujabetzaren aldeko Desobedientzialariek. Horra bi bertsoz amaitzeko nahikoa gaia:

Gaurko egunez, ez hain aspaldi, / hil zuten Mohandas

Gandi, / Tagore berak "Mahama" edo / maisu zion deitzen hari. / Bakezaletzat jo dute baina / zen erreboluzionari, / abertzaleen gidari, / babesgabeen zaindარი, / baina gauza den gaindi, / borrokari bai esan ta muzin / egin indarkeriari, / - desobedientzialariontzat / bilakatu aitzindari.

Debekatuta zeuden jantziak / ta ezin zuten hartu gatz, / Gandik oihalak josi zituen / eta antolatu martxa; / egiarekin zebilen eta / lortu zuen konfiantza, / jende ugariren dantza, / denak tinko aurrerantza / bai lortu ere emaitza; / kolpeak eurrak jasan zituzten, / ez zuten eskurik altxa, / - injustizia agerian utziz, / guztia horretan dantzatza.

**“DNIak NBera bidaltzeko '100etik 1.000ra kanpaina' hasi dute Burujabetzaren aldeko Desobedientzialariek”**





BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

## Tenporen hitzordua

Irtsi zaizkigu tenporak, eta agudo, gainera. Beranduago zirelakoan nengoan, martxo erdialdera, baina ez, tenporen erdi-erdian gaude. Beraz, adi egon zein eguraldi egiten duen. Sarritan ez da hain garbi gelditzen. Pello Zabalak esaten duen moduan, eguraldi nahasia egingo du: euria, eguzkia, haizea... Hori nik ere banekien. Baina Pello oso aditua da eguraldi kontuetan, eta oraingoan ere emango digu hurrengo hilabeteetan egingo duenaren berri. Ur beharra, behintzat, badugu. Azken egunotako euriek Urkulu apur bat bete dute, baina ez behar beste, beraz, bota dezala. Bueno baina ez aste bukaera honetan. Izan ere, Murruxok eski irteera antolatu du, eta aretxabaletar asko joango da Luz Ardiden aldera. Ondo pasatu, baina sano-sano etorri bueltan.

Sano-sano daudenak herriko futbol jokalariek dira. Aratusteetako desfilearen ondoren, Udako talde nagusia indartsu ateratu zen, eta **Joseba González**en golari esker, Mutrikuri irabaztea lortu zuten. Ipurua aldean ere, aretxabaletarrek euren maila erakutsi zuten. **J.J. Barkerok** bi gol sartu zituen. Hori da marka! Partidua, hala ere, berdinketaz bukatu zuten eibartarrek. Ea, ba, hemendik aurrera gol gehiagoren berri ematen dudana.

## ELKARRIZKETA

MYRIAM BELTRAN DE HEREDIA/UDALEKO DROGAMENPEKOTASUN TEKNIKARIA

# Alkoholaren arazoa ez dute debeku bidez konponduko; bai, ordea, heziketa bidez

MIRARI ALTUBE

**G**azteen artean asko edaten dela-eta, Espainiako gobernuak alkoholaren gainean lege berria onartu gura du. Datorren udatik aurrera ezin izango da alkoholik edan kalean eta alkohola edateko adina 18 urte arte luzatuko da.

**Zer iruditzen zaizu Espainiako gobernuak onartu gura duen legea?**

Gazteen artean gutxiago edatea bada helburua, ez zait iruditzen biderik egokiena denik. Debe-ku eta inposaketa bidez ez da ezer lortzen, agian kontrakoa eginaraztea. Zalantza barik, beste bide batzuk aurkitu beharko lirarteke arazoa konpontzeko.

**Zeintzuk izan daitezke bide horiek?**


Garrantzitsuena heziketa da. Beste hainbat jokaera bezalaxe, alkoholaren arazoa konpontzeko, etxeko heziketa ezinbestekoa da. Eskolako ere garrantzitsua izan daiteke, baina etxekoa ezinbestekoa da. Etxetik hasi behar da lanean.

**Gure gizartean alkohola edatea ohitura da, oso errotuta dago, ezta?**

Bai, zoritxarrez halaxe da. Beste leku batzuetan ere bai, baina Euskal Herrian ez dakigu alkohol bako festarik ospatzen. Gabonak direla, urteurren bat dela, herriko jaiak direla... nahitaezkoa iruditzen zaigu ardoarekin edo xanpainarekin ospatzea. Ondo pasatzeko ez dago mozkortu beharrik, ezta gutxiago ere, baina askok ez dute hori ulertzen. Horregatik diot etxeko heziketa garrantzitsua dela; etxeko ohiturak aldatzen hasi beharko ginateke, gure umeek beste ohitura batzuk izan ditzaten.

**Umeendako heziketa, eta dagoeneko gazte direnekin zer egin daiteke?**

Sarritan aisialdian ez dakite zer egin, eta aukera bakarra



MIRARI ALTUBE

*Eskolako heziketa garrantzitsua izan daiteke, baina etxeko heziketa ezinbestekoa da*

*Euskal Herrian ez dakigu alkohol bako festarik ospatzen, nahitaezkoa iruditzen zaigu*

*Aisialdirako irtenbide edo aukera berriak eskaini beharko genizkieke gazteei*

taberna zuloetan sartzea izaten da. Astean barrena, ikasketak direla-eta, ez dute denbora librerik izaten, baina asteburua helitzen denean ez dute zer egin asmatzen. Horregatik, aisialdirako irtenbideak edo aukerak eskaini beharko genizkieke. Tabernan egoteaz gain, erakutsi behar die-

gu ondo pasatzeko badaudela beste aukera batzuk ere.

**Eskoletan ezer egiten da alkoholaren garrantziaz jabetzeko?**

Bai, Udaleko Drogamenpeko-tasun teknikariorik eskolek materiala eskatu izan digute, eta gero irakasleak eurak arduratzen dira

materiala lantzeaz. Alkoholaz gain, tabakoaren eta gainerako drogen berri ere ematen zaie. Dena dela, ez dut uste irtenbidea eskolaren eskuetan dagoenik, ezta debekuan ere; berriro azpimarratu gura nuke hazten ari den umearengan etxeko heziketa ezinbestekoa dela.

## ARTANO akaitegia



Gosariak goizeko 7:00etatik aurrera!

Herriko plaza 3. Tel.: 943 79 62 75 ARETXABALETA

## Jauregi Okindegia

Otatora, 10  
Tel.: 943 79 57 47  
ARETXABALETA

## ZARAIA TABERNA

Goizeko 5.30etatik zure zerbitzuan  
Tel.: 943 79 88 95  
MANTEKA ANAIK

## Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**HIRIGINTZA/** Jadanik termitarik egon ez arren, termiten utzitako aztarnek eta sitsek, etxeetako egurrak usteldu dituzte

# Erabat berritzen ari dira Durana kalean dauden hainbat etxebizitza

MIRARI ALTUBE

Orain hilabete batzuk, Durana kaleko etxebizitzetan termitak ote zeuden aztertu ostean, termiten aurkako tratamendua eman zuen Udalak kalean goitik behera. Orain, egoera eskasean zeuden hainbat etxebizitzetan ere tratamendua eman eta konpontzen dabilta.

Termiten egin dezaketen kaltea larria da, izan ere egurra barrutik jaten dute, eta etxeak mugitu ere egin daitezke. Durana kaleko zenbaki bakoitidun etxebizitzetan termitak zeudela ikusi ostean, Udalak tratamendua eman zuen etxebizitzok babesteko asmoarekin. Hala ere hainbat kasuetan kaltea egina zegoen, etxeak zaharrak izanda egurra egoera eskasean utzi baitzuten bai termiten bai sitsek.

## KONPONKETA BIZILAGUNEN ESKUETAN

Etxebizitzak barrutik konpontzeko erabakia bizilagun bakoitzak hartu du. Batzuek konpontzea erabaki dute, beste batzuek oster, egoera ez dela hain larria eta uztea pentsatu dute. Durana 42. zenbakiko atartean esaterako, termita eta sitsen aurkako tratamendua eman dute eta konpondu ere goitik behera konponduko da. Hiru solairuetan jadanik, ibili dira igeltseroak eta orain beheko dendari, Anduaga merteriarri hain zuzen, tokatuko zaio.



MIRARI ALTUBE

Egoera txarrean zeuden egurrak kendu egin dituzte eta gainontzekoei zomorroen kontrako tratamendua eman diete.

Duranako 40. atarteko bigarren solairua ere hankaz gora dago. Igeltseroek egoera txarrean zeuden egurrak kendu egin dituzte, sukaldeko eta komuneko habeetako egurrak, eta gainontzekoetan zomorroen kontrako tratamendua sartzen ari da horre-

tan aditua den enpresa, "momentu honetan ez dago termitarik, sitsak baino ez daude, baina termitak ere egon dira eta egur batzuk nahiko egoera txarrean daude. Egurrean zuloak egin eta tratamendua sartzen ari gara. Likido honek termitak, sitsak eta gai-

nontzeko zomorroak hilko ditu". Igeltseroek bitartean, burdinazko zutabeak jarri dituzte egurrezkoen pisua arindu eta laguntzeko.

Nahikoa buruko min eman dizkiete termiten bizilagunei, ea konponketa hauekin guztiakin erabat konpontzen den arazoa.

## LABUR

### Pilota selekzioaren aldeko mozioa aurkeztuko da

Euskal pilota selekzioaren aldeko mozioa aurkeztuko du pilota federazioak datorren astelehenean egingo den ohiko osoko bilkuran. Beste gai batzuk ere jarriko dira mahai gainean tartean, udaleko langileen soldata igoera eta bizitzaren aldeko manifestua.

### Kexa ugari sortarazi dituzte edukiontzi berriek

Joan zen astean jarri ziren zaborra batzeko edukiontzien kexak eragin dituzte. Erosotasuna eskaini arren, herri-tarrak ez daude batere ados edukiontzien kokapenarekin. Pasatzeko orduan traba egiteaz gain, batzuek bidegurutzeetan autorik datorren edo ez ikustea galarazten dute.

### Kontuhartzaitzako teknikari lanpostua betetzeko oinarriak

Udaleko kontuhartzaitza teknikari lanpostua epe batez betetzeko oinarriak argitaratu dira GAOn. Lanpostuaren titularraren amatasun baja eta bere oporrak bukatu artekoa izango da lana. Interesatuek agiriak udaletxean aurkeztu beharko dituzte martxoaren 6a baino lehen.

*Aretz*

**taberna**

Markole, 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA



**MEMESA**

*Industri hornidurak*

Tel.: 943 71 24 11 / Fax: 943 71 21 19  
ARETXABALETA

**PAGALDAI**

*Opari denda  
Lurrindegia*

Durana, 33 • Aretxabaleta  
943 79 10 14

**AMETS  
TABERNA**

Iparagirre, 4  
Tel: 943 79 01 29  
ARETXABALETA

**DOIKALSE**

**Elektroerosio  
lanak**

Basabe Poligonoa C-1-1  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 82 44

**LEIBAR**


*arrandegia*



Mitarte Kalea, 1  
Tel.: 943 77 13 79  
Aretxabaleta

**OSKAR  
GARAJEA**

Tel.: 943 79 98 74  
Fax: 943 71 24 59  
Basabe Poligonoa, A-2-4  
ARETXABALETA



**MAPFRE**  
Aseguroak

Errekabarren, 3  
Aretxabaleta  
Tel.: 943 77 11 76

**Maritxu**  
drogeria  
mertzeria

Araba Ibilbidea, 24  
Tel.: 943 79 23 53  
ARETXABALETA

MENDIA

## Zaraia Mendizale Taldeak irteeraz betetako urtea prestatu du aurten

Hamabostean behin egiten diren irteeréz gain, hainbat mendi ibilalditara ere joaten dira

MIRARI ALTUBE

Zaraia Mendizale Taldeak urte hasieran egiten du urteko egitaraua, eta aurtengoa ere mendi irteeraz josita dauka. Ohiko irteeréz gain, zubietan eta oporretan apartekoak egiten dituzte, eta inguruko mendizale taldeek antolatutako mendi ibilaldietara ere joaten dira.

Ehun bazkide inguru ditu Zaraia Mendizale Taldeak, eta Martin Garai da guztien presidentea. Aste bukaeretako irteeretara, bestalde, hogeita hiru bat lagun agertzen dira, eta eguraldiak lagunzen badu, gehiago ere bai.

### ARABAKO LAUTADARI ITZULIA

Iaz, Gipuzkoako Bira egin zuten, eta aurten, Arabako Lautadari Itzulia egiten hasi dira. Domekan, esaterako, Egiletan irten eta Opuaraino joango dira. "Guk egiten ditugun mendi irteeretara edozein etor daiteke; horregatik, hain zuzen, ematen dugu hitzorduen berri kalean", dio Martin Garai presidenteak.

Ohiko irteeréz gain, Aste Santuetako oporretan Leongo men-



Edonork har dezake parte Zariai egiten dituen mendi irteeretan.

dietara joateko asmoa daukate, eta, egunak zehaztu barik izan arren, Loiolako San Inazioaren Itzulia ere egin gura dute, "Nafarroako Xabierren irten eta Azpeitiko Loiolara etorriko gara sei edo zazpi etapa eginda", dio Martinek.

Ez dago esan beharrik mendizaleen artean giro ezin hobea izaten dela. Aurten, gainera, alpinisten zaindariaren eguna ere ospatuko dute ekainaren 15ean, Bernardo de Menthon deunaren eguna, hain zuzen ere.

IGERIKETA

## 'Aquagym' eta igeriketa ikastaroak hasteko, zortzi laguneko taldeak osatu gura dituzte

Otsailaren 4an hasi behar ziren *aquagym* eta igeriketa ikastaroak, baina, momentuz, atzeratu egin dira, taldeak osatu artean. Zortzi laguneko taldeak egin gura dituzte, eta Pedro Balentziaga igeriketa irakaslearen esanetan, izena emateko epea oraindik zabalik dago. Taldeak osatzen diren momentuan bertan hasiko dira ikastaroak ematen, bai goizez bai arratsaldez.

HERRI KIROL TOPAKETAK

## Debagoieneko herri kirol topaketei hilaren 26an emango zaie hasiera Aretxabaletan

Iaz bezala aurten ere Debagoieneko pilota eta herri kirol topaketak egiten ari dira ibarreko eskolak. Gaur, egubakoitza, bukatu dira pilota topaketak Aretxabaletan, eta datorren martitzenean herri kirol topaketei emango diete hasiera ikasleek gure herrian. Debagoieneko ikastetxe guztiek daukate parte hartzeko aukera, eta iaz ehun bat ikaslek hartu zuen parte Aretxabaletan.

### JOKATZEKOAK

#### FUTBOLA

##### Urola-UDA

Preferentea.

Zapatua, 16:30. Zumarraga.

##### UDA-Union Txiki

Gazteen Euskal Liga.

Zapatua, 17:30. Ibarra.

#### PILOTA

##### Lazkao-Aretxabaleta

Kadeteak.

Egubakoitza, 20:30. Lazkao.

##### Eukal jolas-Aretxabaleta

Bigarren mailako gazteak.

Egubakoitza, 21:30. Deba.

### EMAITZAK

#### FUTBOLA

##### UDA 1 Mutriku 0

Preferentea.

##### Barakaldo 2 UDA 0

Gazteen Euskal Liga.

##### Ostadar 2 UDA 1

Bigarren mailako erregionala.

##### UDA 1 Zumaia 1

Bigarren mailako gazteak.

##### Idiazabal 0 UDA 3

Lehenengo mailako kadeteak.

##### UDA 3 Amaiak bat 5

Martutene 10 UDA 0

Bigarren mailako kadeteak.

#### PILOTA

##### Udaberriko Torneoa

Aretxabaleta 4 Illunpe 22

Bigarren mailako gazteak.

Aretxab. (2) 22 Hernani 9

Aretxab. (1) 22 Bergara 6

Lehenengo mailako gazteak.

Aretxab. (1) 22 Goierri 11

Seniorrak.

##### Debarroko Txapelketa

Aretxabaleta 12 Arrasate 22

Kadeteak.

Aretxabaleta 22 Arrasate 21

Gazteak.

## PAUSOKA HAUR ESKOLA

# 2002-2003 ikasturterako izena emateko epea zabalik

Izena ematea: otsailaren 18tik martxoaren 1era, 09:30etik 11:00etara eta 16:00etatik 19:00etara


OTALORA, 27an GAUDE. 943 77 03 77

### TALDE EGOKITUAK

- Oti 3 urtera bitarteko haurrak talde egokituetan
- **ORDUTEGI ZABALA**
- Goizeko 7:30etik 18:00ak arte
- Ordutegia moldatzeko aukera

### JANGELA ZERBITZUAK

- Bertan gertatutako janaria
- Haur bakoitzari egokitutako dieta
- **EGUTEGI ZABALA**
- Egutegi eskolarraz gain, Gabonak, Pazko astea eta uztailaren 24rarte zabalik.
- **LOGELA**



**IKASTURTE BERRIA, ETXE BERRIA.**  
Hemendik aurrera,  
Belorrieta 8an egongo gara!

**PAUSOKA HAUR ESKOLA**  
**Euskaraz hazi eta hezi**

ERRETRATUZHARRA

## Arantzazura urteroko erromesaldian

**O**raindik urtero egiten da Arantzazurako erromesaldia. Fededunek, oinez edo autobusez, ez dute Arantzazuko urteko hitzorduan kalerik egiten. Hala ere, erlijio kutsuko ohitura horretan asko aldatu ei dira guzuzak. Horixe esan digu, behintzat, Felix Altubek, erretratu zahar honen jabeak.

Alboko erretratu orain dela 35 bat urte ateratakoa da, Oñatin, hain zuzen ere. Orduan, gazte eta zahar guztiak elkartzen ziren Oñatin Arantzazura erromesaldi egiteko. Herrian kandelak hartu eta oinez egiten zuten Arantzazurainoko bidea. Gainera, ibilbidea ez zen gaur moduan egunez egiten. Gaueko hamarretan puntuan irtenda igotzen ziren santutegira. Bidean, kandelen argi soilarekin otoitzak eta kantua izaten ziren nagusi. Felixek oso gau polita eta hunkigarria izan ohi zela gogoratzen du.

Goizaldean, berriz, zazpiak inguruan, Arantzazun hainbat meza entzun eta otoitzaldia egin ostean itzultzen ziren etxera, autobusez.



Gaur egun, Arantzazurako erromesaldia herriz herri egiten da, baina orduan, egun berean Gipuzkoa mailako bakar bat egiten zen. Felixek eginiko azken erromesaldian, orain dela 35 bat urte, gutxi gorabehera, Arantzazun 13.000 lagun inguru elkartu zirela aipatu digu: "Duda

barik, sekula egin izan den erromesaldi handienetakoa izango zen ordukoa."

Erretratu zahar honetan Korueta auzoko mutilak agertzen dira. Ezkerretik hasita Daniel Uribetxebarria, Joxe Mari Leibar, Joxe Mari Errasti eta Felix Altube daude. Erretratua atera zenean 25 urte zituzten guztiak.

Etxean daukazu erretratu zaharra ARETXAGAZETAn ateratzea gura baduzu, etor zaitez Durana kalea 11an (udaletxe zaharra) ARETXAGAZETAK duen egoitzara.

Argazkia: Felix Altube

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

## Gero eta etxebizitza handiagoak

**B**eharbada Aretxabaleta ez da hazi zabaleran, baina bai, behintzat, luzeran. Garai baten oso ezagunak ziren Beroa lantoki parean zeuden baserri itxurako etxeak. Izan ere, bost bat etxebizitza zeuden han, hezi batez babestuta. Gerora, baina, inguru hori guztia garbitu, hango baserriak bota eta, horien ordean, gutxienez lau solairuko etxebizitza luzeak egin zituzten han.



± 1998 Herri erdialdean egon arren, Araba ibilbideko etxebizitza txiki batzuek baratza eta guzti zeukaten aurreko aldean.



2002 Lau solairuko etxebizitzak daude orain. Bi urteren bueltan, horrelako hainbat etxebizitza egin dituzte Araba ibilbidean.


OPEL

Lider berria: COMBO.  
Bere kategorian onena.

GARAJE NORTE S.L.

Basabe bidea A 1-3 ARETXABALETA  
943 71 20 03 Faxa: 943 77 16 20

Garaje Nortean autoaren konponketa finantzatzen dizugu sei hilabetera, ata kostu gehigarri barik. **INFORMA ZAITEZ.**



# Zebarri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko otsailaren 22a / 69. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABALETAKO • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com

JUAN MARIA URIARTE/DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKO GOTZAINA

## “Auzoetan sentitu naiz gustura, nire ama eta aita ikusi ditut hemengo elizate bakoitzean”

AINTZANE GARDOKI

**F**ruizen, Bizkaian, jaio zen duela 68 urte. Psikologia eta Teologian lizentziaduna da. Zamoran 8 urtez egon den arren gotzain moduan, Euskal Herrian aritu da lanean beti. Guk, Apotzan hitz batzuk kendu dizkiogu.

**Eta Zamoratik etxera berriz egin duzu buelta.**

Halaxe da, eta oso desberdina da bateko eta besteko lana. Base-ri kutsu handiagoa dago han. Hango gizartea orokorrean lehen- go erara gehiago bizi da. Erlijio aldetik ere tradizionalagoak dira. Baina gauzak aldatzen doaz han ere. Politikoki ere ez dago inolako arazorik...

**Zergatik eskaini diguzu egiten ari zaren bisitaldi hau?**

Bat, nik neuk bailara hau ezagutzeko gogoia neukan. Bi, hemengo apaiz eta pastoral kontseiluek horrela eskatu didate. Hiru, bailarako biziera maila altuak baina fedea hain motel egoteak ere, hausnarketa egitea eskatzen du, eta lau, jendeak dituen kezkek hurbiletik



AINTZANE GARDOKI

ezagutzea ezinbestekoa da, beste- la gotzaina eta herritarren arteko harremana sofistikatu egiten da. **Eta nolako errealitatearekin egin duzu topo?**

Bizi maila oso altua dago hemen, baina fedea hoztu du horrek. Erli-

jio gauzetan politika arazoak ere badu influentziarik. Gazteriak baditu bere baloreak baina ez du harremanik nahi elizarekin. Horrek ez du esan nahi federik ez dutenik euren barruan, baina ez dute agerrarazi nahi.

*“Gazteak faltan bota ditut, baina bestela espero baino jende gehiago ikusi dut bisitaldi honetan”*

*“Bakea elkarrizketatik etorri beharko da. Itxaropentsuago nago orain”*

**Nola heldu hain faltan dauden gazte horiengana?**

Elizarentzat erronka handia da hori. Zubiak estutu, eta batzuk, apurtu egin zaizkigu. Eliza gero eta minoritariagoa izango da gainera. Baina gazteek hurbildu

behar dituzte gazteak ebanjelizantzean.

**Eskoriatzan eta Gatzagan, no sentitu zara gusturen?**

Beharbada auzoetan. Nire jarreriak izango du eraginik. Auzo- gi askotan nire ama eta aitaren aurpegiak ikusi ditut, nire gazte- roko izaerak eta esaerak ikusi ditut. Gazteak faltan bota ditut, baina bestela jende asko etorri da. Itxaropena behar duen jende ugari etorri da.

**Zein da zure eginbeharra egun- ra horretan?**

Itxaropena ematea. Ni ikusten ez galdetzen nabil orain, baina ant- nako baserriak bezala, fedea e- gaurkotu eta berritu egin behar- den dudarik ez dut. Formazioa horren giltza. Jendea presaka bi- da, eta elizkortasunak oraindik behera egingo du, baina lehen bakoitzean talde bizi bat bada- kagu aurrera egingo dugu.


**Euskal Herriko bakea noizko- Duela hilabete batzuk baino itx- ropentsuago nago. Elkarrizke- beharrezkoa da. Elizak, itxarop- na indartu, momentu gordinetan mantso jokatu eta bateratzaila- izan behar du prozesu horretan.**

## ATREBENTZIAEZPADA/ Zer deritzozu gotzainak egin digun bisitari?



**ARANTXA OKARANZA**  
langilea

Garrantzitsua da. Gotzai- nari, ditugun beharrak zuzenean ezagutarazteko aukera eman digu bisital- di honek. Gazteak faltan bota ditut, baina bisitare- kin ez da hori kopontzen.



**ARITZ AZKONA**  
ikaslea

Nik ez dut jakin etorri- denik ere, baina etorri edo ez etorri berdin zait. Egi- ten dituen bileretara jen- deak badu joaterik, baina niri ez dit ezer esaten gotzainaren bisitak.



**JULI EXPOSITO**  
langilea

Niretzat oso garrantzitsua da. Mendira joaten naiz zapaturo eta oraingoan ez. Gazte batek galdetu dit ea gotzainarekin egotea garrantzitsuago den men- dira joatea baino. Bai!



**SOFIA BENGOA**  
erretiratua

Pozik nago, bestela kre- doa ere ahaztuko zaigu eta. Oraingo elizgizonek ez dute zerikusirik lehengo- ekin. Hurbiltasuna senti- tzea ona da, eta Uriartek hori eman digu orain.



**FERMIN LEZETA**  
langilea

Etxekoengandik jakin dut, agian bestela ez nintzen enteratu ere egingo. Gotzainak gure berri jakin gura izatea ona da. Uste dut gainera balore onak sakontzen dituela.

## LABUR

### Herriko hainbat eraikuntza botako dute laster

Aste honetan bertan hasi dira herriko hainbat eraikuntza botatzeko lanak egiten.

Herriko enparantzan bertan, batetik udaletxea bera, eta bestetik, Jose Arana eskola- izandako eraikuntza botako dituzte. Udaletxe berria izateko espero dute honela eskoriatzarrek datozen San Pedro- rako. Egun eskolak dauka lekuan, berriz, etxebizitzak berriak egingo dira.

Aranburuzabala kaleko hainbat etxetan lanak egiten hasiko dira aurki.



**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**ESKORIATZA**

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Jose Arana-Almen ikastol.	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUIHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

**BESTELAKOAK**

Eskualde ospital. (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Goria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

**OHARRAK**

**TELMAH PAILAZO TALDEA**

Martitzenean, arratsaldeko bostetan, Luis Ezeiza ikastetxean Telmah pailazo taldeak *Ah noski* ikuskizuna aurkeztuko du, gura duten guztiendako.

**ESKIATZERA BIDAIA**

Hamabi eta hamazortzi urte bitarteko gaztetxoendako. Gaztedia batzordeak antolatuta. Irteera egunak, martxoaren 23an eta 24an. Irteerara joango diren gazteak monitorean laguntza izango dute egun osoan. Izena eman gura dutenek otsailaren 28a baino lehenago egin beharko dute, kultura etxean.

**AXTROKIRENAGENDA**

**PROGRAMAZIO KULTURALA**

Axtroki Elkarte hasi da dagoeneko aurtengo programa lantzen, eta jakinarazi gura die herritarrei datorren apiriletik aurrera kultura jarduera ugari izango direla.

**KALEZ KALE**

**Zirkulazioan noranzko aldaketak izan dira nagusi astean herrian**

AINTZANE GARDOKI

Erdialdean egingo diren lanak direla medio, martitzenaz geroztik zirkulazioaren noranzkoetan aldaketa ugari izan dira herrian.

Herritarrak eta kanpotik herrira etortitako bisitariak kontuan hartu behar izan dituzte aldaketa horiek guztiak. Gasteiz-Arrasate noranzkoan, Aranburuzabala kaleko 14. zenbakian hasi eta Santa Ana kaleko bidegurutzeraino noranzko bakarra izango da. Arrasate-Gasteiz noranzkoan doazen autoak Arbiñostetik desbideratu beharko dira.

Bestalde, Bolibarko auzotarrak Olazartik desbideratuko dituzte. Elizate horretatik datozen kamioiek, berriz, San Juan kaletik behera hartuko dute Jose Arana kalea. Bestetik, Dorletarako sarrera bakarra izango da, lanek

*Gasteizerako autobusa ez da Aranburuzabalako geltokian geldituko*

irauten duten bitartean. Hara Aranburuzabala kaletik sartu ahal izango da, eta irten, berriz, aipatutako bidetik edo Olazar auzotik.

Hamabi tona baino gutxiagoko kamioiek Aingeruardatik bakarrik sartu ahal izango dira alde zaharrera. Hiriko autobusek ohiko ordutegi eta leketan izango dute geltokia. Gasteizera doazenak, aldiz, ez dira Aranburuzabalako geltokian geldituko.



Noranzko aldaketa asko egin dira astean barrena.



**Datac Gipuzkoa Basket Club saskibaloitaldeak Eskoriatzan egin du entrenamendua**

Eguazten goizean, Gipuzkoan daukagun saskibaloit alderik onena geurean izan zen. Hona etorri ziren, umeen artean saskibaloia indartzeko asmoz. Luis Ezeizako eta Almeneko 300 ikasle izan ziren entrenamendua ikusten. Entrenamendua bukatu ostean, ikasleek kirolariekin berba egiteko aukera izan zuten.



**Eskoriatzako Feria antolatzen ibiltzen diren hirurogei lagun joan ziren sagardotegira**

Antolatze lanetan guztira herriko 110 lagun ibiltzen dira. Zapatuan, lanak alde batera utzi eta Usurbilgo sagardotegi batera joan ziren elkarrekin. Giro onean afaldu eta, trikitixa eta guzti, dantzari ibili ziren. Orain, ajea kenduta, ekaineko lehenengo zapatuan egingo duten feria prestatzen hasi beharko dira.

**OTZETA**  
TABERNA • JATETXEA



- Eguneko menua
- Palter konbinatuak
- Bokadiluak
- Pintxuak

Aranburuzabala 7. Tel.: 943 71 51 90 ESKORIATZA

**ESKORIATZA**



Bazkari eta afariak

Astehenetan itxita  
ESKORIATZA

**ESTETIKA ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA**



**EDURNE**

Aranburuzabala, 42  
Tel.: 943 71 51 54  
ESKORIATZA

# Haritzek eta Sasiainek irabazi zuten pilotarien txapela zapatuan

AINTZANE GARDOKI

Jokatu da pilota txapelketako finala. Jende ugari batu zen zapatu arratsaldean herriko pilotariak animatzeko. Partidu politak ikusi ziren eta giro ezin hobea izan zen frontoi inguruan. Lehenak jokatzeko herriko lau gaztetxo izan ziren. Eta gero, nagusiak aritu ziren.

Gazteenen artean, Odixek eta Aitorrek 18-17 irabazi zieten Ibañeri eta Lurri. Partidu polita egin zuten, eta laurek zapatilak eramateko motxila jaso zuten opari.

Hirugarren postua Inarendako eta Agarrendako izan zen, eta laugarrena, Artabillarendako eta Jonendako; partidu hura oso parekatua izan zen, baina, azkenean, lehenengo bikoteak 22-20 irabazi zien Artabilla eta Joni. Izugarriko giroa izan zen zapatu arratsaldean herrian. Hotza ere, itzela. Baina antolatzaileek horretan ere pentsatu zuten eta, sua egiteaz gain, tolo bat jarri zuten, frontoia ahal zen neurrian babesteko. Musikak giroa, intxaurrek eta ogia ere banatu zituzten ikusleentzako.

**TXAPELA, XANPAIN BOTILA ETA AFARIA**  
Txapeldunen arteko finala izan zen azkena jokatzeko. Partidu polita eskaini zuten lau pilotariak. Norgehiagokan parekatuta joan ziren bi bikoteak, eta, azkenean, 22-20 irabazi zuten Sasiainek eta Haritzek Belokiren eta Unairen kontra. Txapeldunek txapela, xan-



Sasiainek eta Haritzek jokatu zuten finala Unairen eta Belokiren aurka.

AINTZANE GARDOKI

*Txapelketako finalak jokatu aurretik, gaztetxoek jokatu zuten partidua*

paina eta Arraten afaria jaso zuten. Bigarren bikoteak afaria Ostatun eta Jakioneko produk-

*Txapela buruan jantzi ondoren, pilotari guztiek elkarrekin afaldu zuten elkartean*

tuak. Hirugarren geratu zirenek, bestalde, ardoa eta bakailoa, eta laugarren bikoteak, gazta eta

*Hotza izan zen nagusi, baina pilotarien ikuskizunarekin giroa berotu zen*

ardoa. Gero, txapelketan parte hartutako guztiek elkarrekin afaldu zuten herriko elkartean.

## LABUR

**Eskolara zihoazela auto istripua izan zuten hiru ikasleek**

Joan den eguen eguerdian Gatzagako Herri Eskolara hiru umeak eta bi amak auto istripua izan zuten. Umeak Eskoriatzako eskolara zihoazela, Txan magoaren ikusketara zuna ikustera.

Bi autotan umeak hartu zituzten herrietik. Horretatik bata besteari atzetik zihartzeko zela, bihurtu baten auto batek kontrola galdu eta aurrez aurre jo zuten E.Z. gidatzen zuten Ford Focus automobilarekin.

Susto handia hartu zuten auto bidaiariek, baina inork zauri larririk izan.

**Sorginak martxoaren 8a prestatzen ari da**

Martxoaren 8a prestatzeko lanetan hasiak dira Sorgin taldeko kideak.

Astean izan zuten batzordean, oraindik egitaraua gutxi zehazteko gelditu zen, baina mahai-ingurua eta urterako emakumeen bazkari egiteko asmoa azaldu zuten. Mahai-inguruan Maite Arregi EHNEko idazkari nagusia, Toti Díaz de Lezea idazkaria eta Amaia Vázquez sexologia izan daitezkeen ahaleginetan ari dira.

Emakumeen eguneko bazkaria, bestalde, martxoaren 9an egingo dute Marisaren

**LENIZ, C.B. KONPONKETAK**



TXAPA, MARGOA  
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61

**AZKOAGA**

ESTANKOA

Zure  
Zerbitzura



**Eta gainera, zerbitzua etxera!**

Aranburuzabala 3  
ESKORIATZA

Tel.: 943 71 45 46

Ordutegia: 9:00-13:30 eta 17:00-20:00

**FAGOR**



**ELEKTRATRESNA  
TXIKIKO  
NEGOZIOA**

Aingerugarda ibilbidea, z/g  
Tel.: 943 039 100 • 943 71 54 52 (SAT)

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

# Gremioen Gida

**Altube**  
elktrizitatea CB

San Migel 13 - 1D  
Aretxabaleta. 943 79 53 88

**ALTUNA** Zurgindegia

Julio Altuna

Basabe poligonoa, A-2-3  
ARETXABALETA  
943 79 72 55

**TXOMIN**  
igeltserotza  
ARETXABALETA

ERREKABARREN 20  
607 739 835 / 943 79 63 94

RADIO  
ELECTRICIDAD  
LEGAZPIA  
"R.E.L.E."

Denda:  
Santa Ana 17, Eskoriatza  
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65  
Tailerra:  
Santa Ana 12, Eskoriatza  
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

ESKORIATZA

**AITZORROTZ**  
elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10  
Otalora, 14 ARETXABALETA

Hnos. SAJERAS, C.B.

**Margogintza  
Dekorativo eta  
Industrial**

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA  
Tel.-Faxa: 943 71 47 28  
Arrasate Tel.: 943 77 16 66  
Mobila: 608 92 11 18

**PINTURAS**  
ESKORIATZA

- Pintura orokorrean
- Fatxaden pintatzea
- Iztukuak, eta abar

Olaeta 2, 1-ekz. ESKORIATZA  
Faxa: 943 77 07 92. Sakelakoa: 605 772 769

Jon Axpe Oyanguren

**OYANGUREN**  
Iturgintza

Aranburuzabala 15  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 47 14  
606 007 369  
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza
- Gasa
- Berogailuak
- Peetrolio-produktuak
- limatizazioa

**L. GONZALEZ**  
PINTURAK  
Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D  
ARETXABALETA  
686 113 581 / 943 79 65 46

**SANER**  
ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A  
ARETXABALETA  
943 79 64 91 / 605 71 66 92 / 629 47 72 70

**URKO**  
MANTENIMIENTO, S.L.

Instalazioen mantenuendu osoa  
Berokuntza • Gasa  
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.  
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97

ALUMINIOA/P.V.C.a/POLIURETANOA  
ALUMINIOA-EGURRA  
PERTSIANAK ETA OSAGAIK

Aluminios  
KURTZEBARRI  
Aluminioak

Araba Ibilbidea, 17  
•Tel: 943 79 28 41 •Fax: 943 79 79 06  
•20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)  
•E-mail: kurtzebarriehiak@euskalnet.net

**GORBEA S.L.** **K21**

Basabe poligonoa A-2-5 ARETXABALETA  
Telefona eta faxa 943 79 15 71

**ARETXABALETA**  
ITURGINTZA


Durana, 16-Tel.: 79 17 53  
ARETXABALETA

**J.J. ITURGINTZA**  
IRURE

URA  
GASA  
KALEFAKZIOA

MITARTE 15  
ARETXABALETA  
943 793 187

# GRUPO **RKUZ** 1950-2002



*Arkauz zure etxea da.*



Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51  
ARETXABALETA



Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82  
ARRASATE



Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97  
ARETXABALETA

